

BERRIKETA GUTXI

Gore-tex



IMANOL EPELDE

27zapata.eus

gande goizeko euriak aste osoa iluntzen du. Astelehenekoak aste hasiera lokazten. Ostiraleko euriak ere busti egiten du, igual-igual. Euriarekin auto-istripu gehiago izaten da. Ekitaldi asko bertan behera geratzen. Eta hori guztia gutxi balitz, txakurra blai itzuli da goizeko paseotik eta ondo lehortu beharra dago toalla handi batekin. Baina, hortik euria egiten duen bakoitzean eguraldi txarra egiten duela pentsatzera, badago alde.

Lehen, euri falta gaitza zen; gosea uxatzen zen euriarekin. Gaur, badirudi eguzki-egunak "aprobetxatu" egin behar direla eta euri-egunak sufritu. Sortu da halako euriaren kontrako sineste kolektibo bat, gizarte presio bat, azkenean, hodeiak ere idorreriak jota dauzkagula, euria lasai egiteko beldurrak airean. Gu komunera joan eta hustu ezinean gabiltzanean bezalako zer bait.

Artikulu honek ere seguruena ez zaitu euritan harapatuko. Urria lehor doakigu oso. Umeak eskolara eramateko erosoago, erosketak egiteko zoragarri, lagunekin planak egiteko zer esanik ez...

Aurrekoan, urriko egun lehor eta eguzkitsu batean, zapata denda bateko erakusleihoan nengoela, Gore-tex batzuk harapatu nituen niri begira, erruki eske. Ez dakit ehun mota horrek burtsan kotizatzen duen, baina urri honetan egin-dako euri urriari kasu eginez, ez zaizkio gauzak oso ondo joango. Azaroa heldu da ia eta nire alpargata maiteak jantzita segitzen dut oraindik, bustitzeko beldur handirik gabe.

Horregatik, ez entzun kriptot-xanponetan eta funts inmobiliarioetan inbertitzeko esaten dizueten horiei eta egin kasu niri: etorkizuna Zuberoan dago. Espartinetan. Urdinak, beixak, marradunak, estanpatuak... aukeratu gustukoenak eta inbertitu hor, hango espartin-enpresa eta haien altxor bonuetan. Zuberoaren garai onenak pasa zirela uste baguenen ere, euri faltak ureztatu eta loratuko ditu berriz ere Maule eta mauletarak. ●

ARGIA-REN BIZI BARATZEA LURRAMAN EGONGO DA

Lurrama laborantza herrikoiairen besta da eta 20. edizioa egingo du **Miarritzen, azaroaren 7tik 9ra**. ARGIAren Bizi Baratzea ildo bertan izango da: azokan mahaia jarriko dugu liburuak eta gainerako materialak saltzeko. Eta larunbatean, 12:00etan hasita, Egonarria zuzeneko saio berezia egingo dugu Lurramatik, Kanalduderekin elkarlanean.

Urteurren biribila izanik, Euskal Herria da aurtengo herrialde gonbidatua. Bertan ikusiko dugu elkar!

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR